

# ZAHARTZE AKTIBOARI BURUZKO POLITIKAK SUSTATU BEHARRARI BURUZKO ADIERAZPENA

## Europako Legebiltzarrak,

Araudiaren 123. artikulua ikusita,

- A) Kontuan izanik europar biztanleen **batez besteko bizi-itzaropena** asko gehitu dela azken urteetan,
- B) Kontuan izanik adineko pertsonen kolektiboa gure gizartean kapital aktibo garrantzitsua dela,

## 1. Batzordeari, Kontseiluari eta estatu kideen gobernuei eskatzen die ondoko helburu hauetarako proposamen egokiak aurkezteko:

- Zahartzaroak eta adineko pertsonak dauzkaten estereotipo negatiboak **hobera aldatzeko, modu mailakatuan.**
- Gizartean, oro har, zahartze aktiboaren paradigma aktiboaren hedapena eta ulermen integrala bultzatzeko.
- “Haientzat egiteko” lan-ereduaren ordean “haiekin egiteko” eredu ezartzeko, adinekoen **jabekuntza** handiagoa erraztuz, beren bizitzaren eraikuntzan, eta adineko pertsonaren kontzepzio integralean aurrera eginez.
- Benetako komunikazioko politika mesedetzeko, adinekoen prestakuntza ekimenak eskuratzea erraztuz eta elkartegintza bultzatuz, baita mota guztietako foroetan parte hartzea eta inplikatzeko ere.
- Bizitza eta aisialdi ohitura osasuntsuak finkatzen laguntzeko, estimulazio fisiko, kognitibo eta soziala lortzeko.
- Belaunaldien arteko harremanak sendotzeko dauden programak indartzea eta berriak finkatzeko.

## 2. Bere lehendakariari eskatzen dio adierazpen hau jakitera emateko (sinatzaileen izenekin batera) Batzordeari, Kontseiluari, estatu kideen gobernuei, eta interesatutako nazio, eskualde eta toki agintaritzeari.